


PLAN BEREZIA



BERMEOko ALDE ZAHARRA

**BERMEOKO ALDE ZAHARRAREN PLAN
BEREZIAREN BERRIKUSPENARI
DAGOKION GENERO IKUSPEGIARI
BURUZKO TXOSTENA**

Sustatzailea
Promotor



BERMEOKo UDALA
AYUNTAMIENTO DE BERMEO

Erredaktore-taldea
Equipo redactor



Javier Martínez Callejo
Arkitekto Dr.

Markel Bollar Arrate
Hirigintza abokatua

Paula Amuchastegui Moreno
Arkitektoa

Javier Cuevas Ruano
Arkitektoa

Pablo Maguregui López
Arkitektoa

Jon Ajuria Delgado
Arkitektoa

Jesús Sola Jiménez
Geografia eta historian liz.



Pilar Barraketa
Biologoa

Mirari Elósegui
Geologoa

**BERMEOKO ALDE ZAHARRAREN PLAN BEREZIAREN BERRIKUSPENARI
DAGOKION GENERO IKUSPEGIARI BURUZKO TXOSTENA**

Sarrera.....	2
Arau-proiektuaren izendapena.....	2
Xedea.....	2
Sustatzen duen sail eta zuzendaritza.....	2
Idazketaren ardura duen lan-talde teknikoa.....	2
Proiektu edo proposamenarekin zerikusia duten beste arau, plan edo gainerakoak.....	2
Helburu orokorrak.....	3
Genero ikuspegitik garrantzi-ezaren justifikazioa.....	3
Hizkera sexista dela eta sartutako aldaketak.....	4
Parte-hartzea eta baliabideen eskuragarritasuna.....	4

BERMEOKO ALDE ZAHARRAREN PLAN BEREZIAREN BERRIKUSPENARI DAGOKION GENERO IKUSPEGIARI BURUZKO TXOSTENA

Sarrera

Arau-proiektuaren izendapena

Bermeoko Alde Zaharraren Plan Bereziaren berrikuspena.

Xedea

Eranskin honek erantzuna ematen dio Emakume eta Gizonezkoen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoari berdintasun-printzipioa aplikatzerako orduan Bermeoko Alde Zaharraren Plan Bereziaren berrikuspenari.

Sustatzen duen sail eta zuzendaritza

Berrikuspena Bermeoko Udalak eskatuta idazten da.

Idazketaren ardura duen lan-talde teknikoa

Paula Amuchastegui Moreno, Arkitektoa, genero berdintasunean aditua, ERDU enpresakoa, Planaren erredaktore-taldearen parte izanik.

Proiektu edo proposamenarekin zerikusia duten beste arau, plan edo gainerakoak

- EAEko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea.

- Lurraldearen Antolaketa-arte Artekideak:

- 128/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Euskal Autonomi Elkartearen Lurraldearen Antolamendurako Artekideen berrikuspena behin betiko onartzen duena.

- Lurralde Zatiaren Plana:

- 31/2016 Dekretua, martxoaren 1ekoa, Gernika-Markina Lurraldearen Zatiaren Plana behin betiko onartzen duena.

- Udal-plangintza orokorra:

- Bermeoko Hiria Antolatzeko Plan Orokorra, 2012ko irailaren 20ko osoko bilkurako akordio bidez behin betiko onartua.

Helburu orokorrak

Plan Bereziaren berrikuspenaren arrazoia hau da: azken hogeit urteotan zenbait aldaketa izan direla hirigintza, lurralde eta arloko araudia, gizartearen eta ekonomiaren egoera, diseinu grafikoa, oinarri topografikoen zehaztasuna eta informazio geografikoko sistema modernoan erabilgarritasuna dagokionez.

Babes eta zaintzarako Plan Berezi baten xede nagusia da lan orokorretan jasota dagoen antolamendua osatzea, planen zehaztapenak xede dituzten elementu naturalak edota artifizialak babesteko arauen bidez. Beharrezkoa bada, udalerriko plan orokorrean jaso gabeko beste babes-arau osagarriak ere zehaztu dezake. Halakotzat kalifikatutako eta sailkatutako ondasun kulturalen babes-araubidea ere jasoko du –bakoitzaren hasierako eta deklarazioko espedienteen arabera–, eta babes-araubide hori beren helburuen arabera garatu ahal izango du, kultura ondarearen gordetzea eta, kulturaren ikuspegitik, planean aurreikusitako garapen ereduaren bere integrazioa bermatuz, mantentze eta kudeaketarako neurri zehatzak proposatuz. Jasoko ditu ere antolamendu xehatuari dagozkion zehaztapenak eta erdietsi behar dituzten helburuen arabera agiriak.

Genero ikuspegitik garrantzi-ezaren justifikazioa

Genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeari buruzko jarraibideak onartzeko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzko abuztuaren 21eko 40/2012 Ebazpenaren Lehenengo Jarraibidearen 2.1 atalean adierazten den bezala, ez dute egin behar generoaren arabera eraginari buruzko txostenik indarrean dauden arauak aldatzea xede dutenak, aldaketa funtsezkoa ez bada emakumeen eta gizonen egoerari dagokionez.

Berrikuspen honek zenbait eguneratze egitea planteatzen du, denak hirigintza, arkitektura edota lurzoruaren erabilerari lotuak. Dokumentuaren hirugarren bertsioa izango litzateke (aurrekoak 1992 eta 2000 urtekoak dira). Aldiz aurretik oso landua dago beraz, eta funtsean eguneratze bat behar du, baina ez funtsezko aldaketarik.

Antolamenduari dagokionez, proposamen berri nagusiak ez dira Plan Bereziaren eskumen, nahiz eta bertan jaso alboko eremuekiko (hau da, portua eta ospitale gunea) koordinatze proposamen bezala. Araudiaren eguneratzeari dagokionez, bera orain dela gutxi idatzi edo berrikusitako legedira egokitzen da (esateko, Euskal Kultura Ondarearen Legea), gehien bat ikuspegi terminologikoak landuz.

Berrikuspen lanaren gehiena, izan ere, eraikinen gaur egungo egoerari buruzko datuen eguneratzea izan da, behar den bezala islatzeko dokumentazio grafikoan eta eraikinen fitxetan, era horretan bere kudeaketa erraztu eta hobetzeko. Beraz, ondorioztatu daiteke aurreko plan bien indarraldian Alde Zaharra erabat finkatu dela, egituraz garrantzia ez duten orube apur batzuk izan ezik.

Horregatik, uste da aldaketa hauek ez dutela eraginik izango antolaketa eremuan edo udalerriko gainerakoan gizon eta emakumeen gaur egungo egoeran eta ez du ematen ere arau aldaketak genero ezberdintasunak murriztuko dituenik.

Atal honen lehen paragrafoan esandakoa jarraituz, Bermeoko Alde Zaharraren Plan Bereziaren berrikuspenak ez du behar generoaren arabera eraginari buruzko txostenik egitea.

Hizkera sexista dela eta sartutako aldaketak

Hala ere, aldatu nahi diren artikulua aztertu ondoren, hizkuntza ez sexistara egokitu dira. Hain zuzen, ondoko esakerak aldatu dira gaztelerazko bertsioan:

7. artikulua, a puntua:	
Lehen idazkera	Proposatutako idazkera:
"(...) <i>el derecho de cualquier ciudadano a</i> ".	"(...) <i>el derecho de la ciudadanía a</i> "

Parte-hartzea eta baliabideen eskuragarritasuna

Plan Bereziaren idazketa prozedurak hasiera hasieratik izan du Herritarren Parte Hartze Programa bat, hiritarrek hirigintza dokumentua egiterako orduan lehen faseetatik parte hartzeko eta horrela Plan Bereziaren berrikuspen programa bideratzeko.

Horrela, bertan aurreikusitako ekintzek hiru helburu zituzten: Plan Bereziari buruzko informazioa eman, Plan Berezia egiterako orduan herritarren parte-hartzea sustatu eta Plan Bereziaren azterketa kritiko bat ahalbideratu.

Ekintza hauek bide ezberdinen bitartez argitaratu eta gauzatu dira (udalaren bidez oartzuna eman, komunikabideak, etab.), euskarri ezberdinez (papera, audiobisuala eta digitala) eta formatu/dinamika ezberdinez (aurkezpena, hitzaldia, elkarrizketak), interakzio maila ezberdinez (aurrez-aurre, ez aurrez-aurre, era kolektiboan edo indibidualean) eta ordutegi ezberdinetan, parte-hartzea, inklusibitatea eta kontziliazioa errazteko.

Plan Berezi beraren edukira heltzeko, jendaurreko erakustaldi bat egin zen jada Aurrerakin fasean eta berriz jarriko da jendaurrean bere hasierako onarpenean. Ez da uste desberdintasunik izango denik gizon eta emakumeen artean informazio horri heltzerako orduan. Gainera, dokumentazio osoa dago eskuragarri Udalaren bidez, bai bere webgunean, bai udal bulegoetan.

Bilbo, 2020ko uztaila.

Erredaktore taldearen izenean:



Javier Martínez Callejo
Hirigintza Arkitektoa
Arquitecto Urbanista
EHALO 2946 COAVN



Markel Bollar Arrate
Hirigintza Abokatua
Abogado Urbanista
BAEO 4453 ICAB